

IRAKURTZEN AL DUZU?

Irakurketa garrantzitsua da gaur egun eta garrantzitsua izan da beti munduarekiko ikuspegia irekitzen duelako baita hau aldatzeko gaitasuna ematen duelako ere. Irakurtzeak inguruneak partekatzea, pentsamenduak eraikitzea eta hezkuntza motibazioak areagotzea eragiten du, beraz mundua ulertzeko beste ikuspuntu bat sortzen du. Horregatik garrantzitsua da gizakiak informazioa irakurtzeko eta ulertzeko gaitasuna eta nahia edukitzea.

Gizartean dagoen irakurtzeko ohitura aldatuz joan da azken urteetan bai gazteen artean eta baita helduagoak direnen artean ere: gazteei dagokienez F.J. Elzok "Jóvenes Vascos 1990" egindako Euskal Estatistika Erakundeak egindako bizi baldintzen buruzko inkestak 1994ean Euskadiko gazteen %43ak ez zuela inoiz irakurtzen zioen. 2017.urtean beste inkesta bat egin zuten UPV-ko Maite Serna, Arantzazu Rodríguez eta Xabier Etxanizek Bizkaiko lehen hezkuntzako ikasleen artean eta ondorengo ondorioa atera zuten: ikasleen %62,2ak oporretan irakurtzen zuten eta astean hainbat aldiz ere, nahi zutelako.

Baina ordundik egoera okertzen joan da eta gaur egun %40 gutxiago irakurtzen dute 2017ko inkestarekin alderatuz. Aitzitik, gazteak dira gizartean gehien irakurtzen dutenak, bereziki 16 eta 24 urte artean eta ondoren 40 urtetatik aurrera asko jaisten da ohitura hori, gehienbat ez zaielako gustatzen edo interesatzen irakurketa (%44,9-ak esan zuen hori zela arrazoia).

Irakurketarekiko interesa eta ohitura ez da sortzetikoa eta beraz haurtzarotik garatu eta esnatu behar da "Irakurle ona ez da jaiotzen, egin egiten da" (Felipe Garrido). Horretarako garrantzitsua da haurrei erakutsitako irakurketa ohiturak onak izatea, baita irakurketa baliagarria dela ulertzea ere eta hori lortzeko eskolan egiten den lanketa eta baita etxean egiten dena ere dira beharrezkoak alfabetatze-prozesua egoki emateko.

Etxean ematen diren ekintzei dagokienez, familia bakoitzeko bizi ohiturak desberdinak direla azpimarratu behar da, baina giro horretan liburuak edo egunkariak irakurtzea, gauzak gogoratzeko idatzizko paperak ezartzea edo besterik gabe ingurukoekin eguneroko gertateren inguruan hitz egitea edo elkarrizketak mantentzea onuragarria da irakurketarekiko interesa garatzeko. Izan ere, irakurketa ohitura arruntzat hartzen da horrela, baina ekintza hauek ez dira etxe guztietan ematen, eta hala ere interes hori garatzeko aukera edukitzeko garrantzitsua da eskolan egiten den lanketa.

Ikasgeletan txikitatik ikasten da mota desberdinetako testuak irakurtzen eta idazten, beraz gaitasuna garatzen dute haurrek, baina normalean ekintza horietarako afizioa edo nahia ez da garatzen. Hau da, irakurtzeko eta idazteko ahalmena dute baina bakarrik eskolan horrela agintzen bazaie egiten dute, ez beraiek nahi dutelako. Aipatutako ikerketek adierazi bezala gutxi dira beraien denbora librean ekintza horiek egiten dituztenak eta eskolan bidalitako derrigorrezko irakurketek zuzeneko eragina dute.

Eskola gehienetan derrigorrezko irakurketak ezartzen dituzte, hau da, ikasle guztiek derrigorez irakurri behar dituzten liburu batzuk finkatzen dituzte. Arruntena idazle handien liburuak bidaltzea da, esanahiez eta historiaz beteriko liburuak baina guztientzako interesgarriak ez direnak, eta askotan aspergarriak izatera irits daitezkenak. Beste askotan gaurkotasun handiko liburuak dira irakurri beharrekoak baina hala ere, askorentzat aspergarriak direnak eta horrek irakurketa aspergarria dela pentsatzera eramaten ditu gazteak eta ondorioz irakurketa beraien egunerokotik baztertzen dute.

Eskolan derrigorrez irakurri beharreko liburu zehatz batzuk ezarri orde z aukeraketa norberarena izatea izango litzateke konponbide aproposena. Horren arrazoia norberak berarentzako egokiena den liburua aukeratzeko askatasuna izango lukela da, eta beraz bakoitzak bere interesen arabera berarentzako erakargarria izango den liburua aukeratu luke. Era horretan irakurketarako zaletasuna garatzea errazagoa bilakatuko litzateke eta gaztetatik irakurtzeko ohitura egongo litzateke. Gaztetan benetako ohitura garatuta heldutasunera ere usadio horrekin iritsiko dira gazteak eta gizartean gehiago irakurriko da.

Amaitzeko, irakurtzeak jakinmina pizten duenez baita gehiago irakurtzeko desioa ere, norberak mundua ikusi eta ulertzeko beste ikuspuntu bat garatuko luke irakurriz eta ondorioz pertsonen arteko harremanak eta elkarrizketak garatzeko beste modu bat sortuko litzateke. Beraz, irakurketak dakarzan onurak garbiak dira eta horregatik gizarteko irakurketa ohitura aldatzea ezinbestekoa da, eskolan dauden ohituretatik hasita gizarte pasibo batetik gauzekiko interesa duen gizartera igartzeko.

INFOGRAFIA:

[Microsoft Word - Ponencia de D.^a Marta Soler Gallart.doc \(researchgate.net\)](#)

[Aproximación sociológica a los hábitos de lectura de la juventud vasca \(researchgate.net\)](#)

[Serna.pdf \(educacion.gob.es\)](#)

[Los índices de lectura de los españoles se mantienen estables tras la pandemia y crecen cinco puntos respecto a 2012 | Ministerio de Cultura](#)